



Euskal nortasuna eta kultura: XXI. mendea

2007 martxoa/marzo/mars
Nº 176 zenb.

Una investigación refleja, en toda su complejidad, el pensamiento y el sentimiento de la población de Euskal Herria respecto a su identidad y a su cultura. En palabras de Javier Retegui, se trata de "una herramienta extraordinaria para enfocar el futuro"

Zenbait urtez Eusko Ikaskuntza eta Euskal Kultur Erakundeko ikertzaile talde batek lan egin du Euskal Herriko lurraldeetako biztanleen ikuspuntutik euskal nortasuna eta kultura zer diren gaiaren inguruko diagnostikoa osatzen. Akitania-Euskadi Egitarauaren laguntza eta Eusko Jaurlaritzako Lehendakari Zuzendariaren eta Lege Araubide Zuzendariaren babes teknikoak jaso dituen ikerketa honen emaitzak komunikabideei jakinarazi zitzaizkien joan den otsailan, Donostian (5ean, argazkian), Iruñean (7an) eta Baionan (28an) egindako hiru prentsa aurrekoetan.

Eusko Ikaskuntzak liburuan eta CD-Romean argitaratu du *Euskal Nortasuna eta Kultura XXI. mendearen hasieran* izenburuko ikerlan hau. Metodologia zorrotza erabiliz, ikerlan honek aztertutako lurralde guztiei buruzko emaitza zehatzak eskaintzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoaren, Nafarroako Foru Erkidegoaren eta Ipar Euskal Herriaren arteko hainbat azterketa konparatiborekin batera.

Kultura: akuilagarri bat

Ikerketa hau ez da saiatzen euskal nortasuna zer den edo zer ez den zehazten, baizik eta Euskal Herriko biztanleek euskal nortasunaz eta kulturaz pentsatzen dutena (bai beren burua euskalduntzat hartzen dutenek, bai eta halakotzat ez dutenek ere). XXI. mendean euskal gizarteak -nortasun konplexuz hornituriko eta elementu egituratzaile sendorik gabeko gizarte batek- aurre egin beharreko erronkak eta aukerak nabarmentzen ditu azterlan honek.

Euskal Kultura eta Nortasuna XXI. mendearen hasieran lanaren ondorioen artean, ondokoa esaten da: "Kultura akuilagarri eta pizgarri izan daiteke euskal nortasunarentzat eta gizartearentzat berarentzat. Kulturak oinarri eta bide berriak proposatzen ditu, eta horiei esker euskal gizarteak bere garapena mugatu duten dinamikak gaindi ditzake".

Topagune baterantz

Pentsaren aurreko aurkezpenean, Javier Retegui "funtsezko dokumentu" gisa definitu zuen ikerketa. "XXI. mendearen hasierako Euskal Herriaren egoera sakon ezagutzeko abiapuntutzat hartu zuen, eta "etorkizunari begira berebiziko tresna" zela esan zuen.

Beste une batean, Eusko Ikaskuntzako Lehendakariak ondokoa adierazi zuen: "Euskaldunak balio gutiz handia duen ondarearen jabe gara: gure kultura. Aurrerabiderako eta kohesio sozialerako palanka, barnealdean; bai eta kanpoaldeari begira ere, gure burua nortasun eta balio propioekin proiektatzeko.

Horrela ikusirik, XXI. mendeko euskal nortasuna funtsean zerbait kulturala, dinamikoa eta integratzailea izan daiteke, eta izan behar du. Agian, euskaldun guztientzako topagunea, hain beharrezkoa duguna".

(Argibide gehiago, 4. orrian)

Metodología y contenido

Recogida de datos:

- . 22 grupos de discusión y entrevistas personales
- . Encuestas a 3.822 personas
- . Análisis de contenidos publicados en Internet durante un año

Temas analizados:

- . Territorio
- . Identidad
- . Lengua
- . Cultura vasca
- . Prácticas culturales
- . Vida asociativa

Responsables et auteurs

Erramun Baxok, Pantxo Etxegoin, Terexa Lekunberri, Iñaki Martínez de Luna, Larrait Mendizabal, Igor Ahedo, Xabier Itzaina, Roldán Jimeno



Igor Ahedo, Javier Retegui, Erramun Baxok, Iñaki Martínez de Luna

Homenajes: Micaela Portilla eta Joxemartin Apalategiri omenaldiak

Del 21 al 24 de febrero, Vitoria-Gasteiz acogió un intenso programa de actos académicos y culturales en torno al legado de Micaela Portilla, historiadora alavesa fallecida en octubre de 2005. Cerca de una veintena de especialistas disertaron en unas Jornadas Congresuales donde se hizo repaso a las aportaciones de Micaela Portilla a lo largo de su dilatada trayectoria, y se actualizó el estado de conocimiento en las principales disciplinas sobre las que investigó: Patrimonio, Geografía, Historia y Arquitectura alaveses. Asimismo, hubo exposiciones sobre su vida y su obra y un homenaje popular a su memoria.

Las Jornadas Congresuales fueron organizadas por Eusko Ikas-

kuntza y la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País, con apoyo del Departamento de Cultura del Gobierno Vasco y de las principales instituciones alavesas.



Joxemartin Apalategi

Otsailaren 15ean, Donostian, jardunaldi-omenaldi bat egin zitzaion Joxemartin Apalategiri, duela urtebete hil zen gipuzkoar antropologo, irakasle eta ikertzailea. Antolaketa batera hartu zuten beren gain Eusko Ikaskuntzaren Gipuzkoako Lehendakariordetzak (Apalategi berak 1991tik 1993ra izan zuen kargua), Eusko Ikaskuntzako Antropologia-Etnografia Sailak eta EHUko Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak, Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologi Sailarekin batera. Jardunaldia bi saiotan banatu zen: goizekoan, espezialisten bilera batean, haren ekarpena aztertu zen etnografia, landa ikerketa, mitologia eta ahozko tradizio-

aren alorrez den bezainbatean; arratsaldeko saioak publiko zabalagoa zuen helburu: haren lagun, ikasle eta lankideek zenduriko antropologoaren giza eta bizi erretratu egin zuten.



Deux figures

des lettres récemment disparues, furent l'objet d'un hommage en février.





Sinadura Mutrikun

Otsailaren 16an Mutrikuko Udalak kultura eta zientzia lankidetzarako Hitzarmen bat sinatu zuen Eusko Ikaskuntzarekin. Hitzarmen hau datozen urteetan mamituko da hainbat egitasmoren bidez. Ekitaldi horretan, Estanislao Osinalde, Mutrikuko alkateak eta Teresa del Valle, Eusko Ikaskuntzaren Gipuzkoako Lehendakariordeak parte hartu zuten (argazkian).

Sinaduraren aurretik, Eusko Ikaskuntzako Batzorde Eragileak ohiko bilera egin zuen Mutrikuko Udaletxean.



Oihenart, 22

Oihenart, Cuadernos de Lengua y Literatura de Eusko Ikaskuntza, aldizkariaren 22. alean Unai Elorriaga idazlearen lan narratiboari eskainitako lan monografikoa kaleratu berri du.



Argitalpen honetan, espezialistek sinatutako sei lan biltzen ditu. *SPrako tranbia* nobelaren azterketa kritikoa (Ana M^a Toledo), 2002ko

Narratiba Sari Nazionalaren Sariak komunikabideetan izandako isla (K. Alijostes, A. Alegria), idazlearen estiloaren ezaugarri bereizgarriak (A. Olaeta, A. Rabanal), eta bere gaztelararako itzulpenaren azterketa (E. Amorrortu et al.).

Liburua Jon Kortazar irakasleak aurkezten du.

Secciones científicas

La Secciones científicas de Eusko Ikaskuntza forman la columna vertebral de la Sociedad. Por ello, su dinamización y actualización son tareas prioritarias para el actual equipo rector.

Comisión de estudio

El 6 de febrero tuvo lugar una reunión interpresidencial de las Secciones científicas de Eusko Ikaskuntza. En la misma se aprobó la constitución de una Comisión de estudio para la reflexión en torno al papel, función y naturaleza de las Secciones en el seno de la Sociedad, con vistas a su actualización y revitalización. Dicha comisión, coordinada por Juan Antonio Rubio-Ardanaz (en la foto), Presidente de la Sección de Antropología-Etnografía, estará compuesta por tres Presidentes o Presidentas de Sección juntamente con dos miembros del Comité Ejecutivo. Se prevé que presente sus resultados a lo largo del año 2007.



Lehendakaritza berriak

Otsailaren 20an, Eusko Ikaskuntzako Hezkuntza Saileko kideek Inés M. García Azkoaga berrautatu zuten beste agintaldi baterako. Euskal Filologian Dokorea eta unibertsitateko irakaslea da eta hainbat ikerketa burutu ditu elebitasun, eleaniztasun eta hizkuntzak ikasteari buruz. Liburuak, artikulak, monografiak eta kongresuetarako txostenak biltzen dituen corpus bibliografiko garrantzitsu baten egilea da. Otsailaren 24an, Historiaurrea-Arkeologia Sailak ekin zion bere Lehendakaria izendatzeari. Kargua Joseba Ríos Garaizar egokitu zitzaion. Historian Lizentziaduna, Deustuko Unibertsitatean, Euskal Herriko Historiaurrean espezialista da eta ondoko gaiak ikertu ditu bereziki: industria litikoen azterketa teknologikoa eta funtzionala eta Uribe-Kosta eskualdeko historiaurreko okupazioak.



Plate-forme multimédia

La Fondation Euskomedia de Eusko Ikaskuntza a mis en service une nouvelle plate-forme web en vue de consulter les contenus multimédia (audio et vidéo) concernant les société, science et culture basques.



Le but est de créer une nouvelle vitrine qui montre tous les contenus qui existent actuellement et qui seront créés dans l'avenir tant en version audio

(causeries radiophoniques, entrevues et articles de la revue *Eusko-news*) qu'en version vidéo (enregistrement et diffusion de toutes les activités formatives et de tous les événements d'Eusko Ikaskuntza).

Au moment de son lancement, la plate-forme compte plus de mille heures d'audio appartenant aussi bien aux archives historiques d'Eusko Ikaskuntza qu'aux nouvelles productions (causeries et articles d'*Eusko-news*, ainsi que trois audio livres), et plusieurs vidéos de contenu très divers. On peut accéder à tout cela, librement, à l'adresse: media.euskonews.com.

Desarrollo Sostenible: IV Informe

El Programa Especial Pluridisciplinar sobre Desarrollo Sostenible, impulsado por Eusko Ikaskuntza desde 2004, va a entrar en una nueva fase.

A lo largo del año 2006 se recogió la visión de los diferentes Grupos de Trabajo acerca de lo que se podría hacer en relación con el Desarrollo Sostenible. Se valoró también el posicionamiento de todos los actores del sistema ante los diferentes Factores Estratégicos previamente planteados y que ya, en su conjunto, definían un posible escenario. En total, fueron 40 los Factores Estratégicos considerados. A continuación se trabajaron los Objetivos y Acciones relacionados con los Factores Estratégicos según el plano motricidad-dependencia.

En las próximas semanas se presentará el IV Informe de Progreso, que intenta dar respuesta a la pregunta "¿Qué vamos a hacer?". La visión compartida a la que se ha llegado en este IV Informe diseña, como cuerpo central, un sistema de factores estratégicos (claves y palancas) sobre los que actuar.



Reunión del PEP(DS) en Donostia, julio de 2006.



Centenario del Canciller Ayala

En marzo, el monográfico mensual del semanario electrónico *Eusko-news&Media* (número 388) está dedicado a la figura del político y diplomático Pedro López de Ayala, canciller mayor del reino de Castilla y hombre de letras. Diversos especialistas escribirán en torno a la figura de este importante personaje en sus diversas facetas, con motivo de celebrarse este año los 600 años de su fallecimiento en Calahorra, a los 75 años de edad.



El prestigioso medievalista Julio Valdeón Baroque, de la Universidad de Valladolid, abrirá el número con una entrevista glosando la figura del célebre canciller.

Sur le langage oral

Le 16 février, à la Faculté de Philologie et Géographie et Histoire de la UPV/EHU à Vitoria-Gasteiz, la Section d'Education d'Eusko Ikaskuntza a organisé une conférence de Glais Sales Cordeiro (Docteur en Sciences de l'Education et Professeur à l'Université de Genève) sous le titre "Langage oral : objet d'enseignement intégré ou autonome ?".

La conférence, adressée aux professeurs et aux chercheurs qui travaillent dans le monde de la langue, a reçu un excellent accueil. La présentation de la rencontre était à la charge d'Itziar Idiazabal, de la Section de l'Education d'Eusko Ikaskuntza, cependant que le débat postérieur à la conférence était dirigé par la présidente de cette même Section, Inés García Azkoaga.



Formación Superior: hacia una red social

La Fundación Asmoz de Eusko Ikaskuntza está trabajando en la constitución de una red social para el ámbito de la formación superior. El objetivo es desarrollar una red social entre los alumnos (y ex-alumnos), profesores, proveedores y entidades colaboradoras (universidades, consorcios, colegios, empresas...) de la Fundación Asmoz de Eusko Ikaskuntza, a efecto de potenciar las relaciones académicas, laborales y personales entre ellas, utilizando las facilidades que Internet ofrece.

No obstante, el objetivo final es crear una red social para el ámbito académico superior del País Vasco, entendido el mismo como el conjunto de personas y entidades que cursan sus estudios o realizan sus labores académicas y profesionales en dicho espacio geográfico.

El proyecto de una red social de la Formación Superior cuenta con el apoyo de la SPRI del Gobierno Vasco dentro del programa Saiotek.

Bekak

Le délai pour les deux bourses convoquées pour l'année prochaine en accord avec l'Université de Genève et l'Institut d'Estudis Catalans se termine.



Beca para Cataluña

**Estudios comparativos*

El 15 de marzo concluye el plazo de admisión de propuestas a las becas que otorgan Eusko Ikaskuntza y el Institut d'Estudis Catalans dirigidas a jóvenes investigadores interesados por algún aspecto concreto tanto de la cultura catalana como de la vasca, y con preferencia a los proyectos para estudios comparativos entre ambas culturas.

El importe de la beca es de 3.600 euros, y corresponde al pago de gastos de estancia de tres meses en alguna zona catalanoparlante. Los candidatos habrán de ser licenciados o graduados en facultades universitarias o centros de enseñanza superior en los últimos diez años.

EI-EK Saria

**Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte-Zientzien Saria*

Curriculum vitae gailenari ematen zaion Eusko Ikaskuntza-Euskadiko Kutxaren XIII. Sarirako hautagaiak jasotzeko epea zabaldu da. Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte-Zientzien alorrean jardueran dauden zientzia ikertzaile eta kulturaren pertsona ospetsuek izango dute sari hori lortzeko aukera. Sarituriko pertsonak Euskal Herriko garapen kulturalari modu eraginkorrez laguntza ekarria izan beharko du bere obra osoaren bidez.

Interesatuak berak, erakundeek edo unibertsitate sailek edo zientzia eta kultura erakundeek aurkeztu ahal izango dituzte hautagaiak. 18.000 euroko sari bakarra emango da. Hautagaiak aurkezteko epea apirilaren 30ean amaitzen da.

Iparralde: Assemblée

**Senpere: 3 mars*

Le 3 mars aura lieu à Senpere l'Assemblée générale d'Eusko Ikaskuntza Iparralde. Quatre points entreront dans l'ordre du jour : rapport d'activités, rapport financier, élections du Conseil d'Administration, questions diverses.



Château de Senpere.

Université de Genève

**Jusqu'au mars*

Eusko Ikaskuntza et l'Université de Genève, dans le cadre de leur accord de collaboration, offrent une bourse pour que des docteurs ou des candidats au doctorat dont les thèses se trouvent dans une phase très avancée développent dans cette Université une recherche liée aux sciences de l'éducation, avec une attention toute spéciale aux processus d'acquisition et d'apprentissage des langues, en qualité d'*Hôte de relations internationales*.

La dotation économique de la bourse sera de 2.116 euros par mois. Le délai d'admission des sollicitudes se termine le mars.

Markina-Xemein

**Ciencias sociales*

Eusko Ikaskuntza, en el marco del nuevo convenio con el Ayuntamiento de Markina-Xemein convoca una beca de investigación sobre la influencia que los padres carmelitas han tenido en la vida de la villa y en sus habitantes. La beca está dirigida a expertos en Ciencias Sociales y/o que tengan experiencia en el trabajo propuesto. Se pretende que el estudio recoja vivencias, experiencias y sentimientos acumulados por los vecinos en su relación con los carmelitas de Markina-Xemein. La dotación de la beca es de 6.000 euros brutos y la duración de seis meses.

El 4 de abril se cierra el plazo de admisión de propuestas.

Bizkaiko Bazkideen Eguna

**Bilbo: martxoak 26*

Martxoaren 26an Bizkaiko Bazkideen Eguna egingo da lurralde horretan.

Ekitaldian zehar omenaldi txiki bat egingo zaie 25 urteko antzintatasuna duten Eusko Ikaskuntzako bazkideei.

Bilkura Bizkaiko Batzar Nagusien Bilboko egoitzan izango da, arratsaldeko 7etan.



Eusko Ikaskuntzako Bizkaiko Lehendakariordetzak ekitaldi bat antolatzen duen bazkide berriei ongietorria emateko azaroaren 16an, Bilboko ostatu batean.



En círculo

Literaturaren inguruko foro berri bat abiarazi da hila-bete honetan. Eta martxoako jadanik aurreikusitako jai eta arte ondareei buruzko beste bi jardunaldi.

Literatura aretoak

**Jarduera berria*

Eusko Ikaskuntzaren Gipuzkoako Lehendakariordetzak beste jarduera berri bat abiarazi du, EHUekin lankidetzan: Literatura Aretoak. Topaketa hauek aldian behin egingo dira alde zuzenetik parte hartzaileek irakurritako liburu baten inguruan. Obra bere testuinguruan jarri eta forma eta esanahiaren aldetik duen egitura seinatuko duen sarrera baten ondoren, elkarrizketa orokorra zabalduko da argudio eta estetika edukia aurkitu, interpretatu eta ahalik eta gehiena aprobetxatzearren.

Izen oneko bi idazle zuzenduko dituzte "Areto" hauek: Luisa Etxenikek gaztelaniazkoa, eta Felipe Juaristi euskarazkoa. Hiruhileko honetarako proposaturiko obrak: gaztelaniaz, Katryn Harrison-en *La mujer de nieve* (martxoak 15), Sandor Marai-ren *El último encuentro* (apirilak 19), Truman Capote-ren *Otras voces, otros ámbitos* (maiatzak 10); eta euskaraz: Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pausa* (martxoak 22), Juan Cruz Igerabideren *Hauts bihurtu zintzen* (apirilak 26) eta Joseba Zulaikaren *ETAren hautsa* (maiatzak 17).

Asistentziak aukera askeko 15 orduko kredituek balioa du.



Loi des musées et structures muséales

**Journées itinérantes*

La Section d'Arts Plastiques et Monumentaux a programmé des Journées sur la Loi des Musées, qui se dérouleront de façon itinérante tout au long des mois de mai et juin.

Le but de ces rencontres est d'analyser la nouvelle Loi des Musées et la répercussion qu'elle peut avoir sur le réseau muséistique basque, et la comparer en même temps avec la situation de l'autre côté de la Bidassoa. La première session aura lieu le 5 mai à Artium de Gasteiz ; suivront d'autres sessions au Musée Basque de Baiona (12 mai), Donostia (19 mai) et la clôture aura lieu au Musée des Beaux Arts de Bilbao (26 mai).

La rencontre de Baiona se tiendra sous le titre spécifique de *Loi des musées et structures muséales en Pays Basque de France*, et sera structurée en deux sessions thématiques: le matin, le thème à débattre

Alardeak mintzagai

**Jardunaldiak maiatzean*

Maiatzaren 3, 5 eta 6an egitekoak dira Antzuolako eta Euskal Herriko alardeen lehena, oraina eta geroa Jardunaldiak, Eusko Ikaskuntzak, Antzuolako Udalak eta Mairuaren Alardearen Elkarteak antolatuturik.



Hondarribiako Alardea.

Hona Jardunadien helburuak: alardeak ezagutaraztea eta zabaltea, Euskal Herriko jai gertakari honi buruzko gogoeta partekatua garatzea, eta bereziki, Antzuolako Alardearen iraganaz eta etorkizunaz.

Lehen jardunaldian esparru txosten bat ezarriko du espezialista batek. Bigarrenean, 5ean, Antzuolako alardeari buruz Eusko Ikaskuntzako Margaret Bullen eta Xabier Kerejeta kideak burutzen ari diren ikerketa soziokulturalaren egoera aurkeztuko da.

Egun horretan bertan, zenbait tailerren bidez hitza emango zaie antzuolatarrei beren alardeaz dituzten ikuspuntuak azal ditzaten.

Azkenik, 6an, Euskal Herrian egiten diren alarde nagusien ordezkariak elkartzeko dira.

Conferencia

El 19 de marzo, en Bilbao, dará una conferencia la poetisa Elena Medel sobre el tema *Por qué leo libros de mujeres*.



Musée Bonnat. Baiona.


**EUSKO
IKASKUNTZA**

Euskal nortasuna eta kultura XXI. mendearen hasieran

Ikerketa hau Eusko Ikaskuntza eta Euskal Kultur Erakundetik abiatu zen. Eusko Ikaskuntzaren bitartez Euskal Herri osora zabandu zen eta Eusko Ikaskuntzak berak ondorioak argitaratzen ditu hiru liburu ederretan (euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez), bakoitza bere zederomarekin. Helburua zen jakitea herritarrek zer pentsatzen duten lurraldeaz, nortasun kolektiboaz, hizkuntzaz, kulturaz eta euskaltasunaren etorkizunaz. Eskueta daukagu 4000 lekukoren iritzia eta ikerlari askoren komentarioak, I. Martínez de Luna, L. Mendizabal, P. Etchegoin, T. Lekumberri, I. Ahedo, X. Itzaina, R. Jimeno, P. Aierdi eta ni neu, besteak beste.



Erramun Baxok

Euskal Kultur Erakundea

Euskal lurraldea Zazpi herrialdeek osatzen dute askoren iritziz. Baina Hegoaldean, inkestatuen heren batentzat Eusko Autonomia Erkidegoa (EAE) da Euskal Herria hobekien definitzen duen lurraldea. Iparraldean aldiz herri barnealdea. Praktikan Nafarroak eta EAEk beren artean dituzte harreman gehienak. Baina harreman askoz gehiago bada Iparraldetik Hegoaldera ezinez eta alderantziz.

Nortasunaren baldintzak

Euskal nortasunaren baldintza nagusiak Iparraldean sor-lekua, euskara eta arbasoak dira, hots ezaugarri tradizionalak. Aldiz Hegoaldean euskal herritar izateko sor-lekuak badu bere garrantzia, baina hein berean edo gehiago Euskal herritar izateko nahia, herrian bizitzeko eta lan egite-

ko aukera. Horiek hola, Euskal herritar gehienek nortasun bikoitza sentitzen dute: euskaldun-frantses, euskaldun-espainol, nafar-euskaldun. Ezberdintasun nabaria hau da, EAEen multzo handiena soilik "euskal herritar" sentitzen dela (%40), Nafarroan "gehien bat nafar" (%38) eta Iparraldean gehien bat "frantses" (%36). Halere multzo honetan anitzek nahi dute haurrek euskara ikas dezaten eta jatorrizko euskal izenak atxik ditzagun.

Hizkuntzaren transmisioa eta elebitasuna

Euskararen aldeko motibazioak biziki baikorrak dira 3 lurraldeetan, baina elebidun gehienek hobeki hitz egiten dute frantsesez edo espainolez. Herritar askok sostengatzen dute familia eta eskola bidezko transmisioa. Gaur egun, euskalduntasuna aitzina doa orotan eta elebakartasuna atzera doa orotan. Ezberdintasuna da Iparraldean jendea zaharrago eta euskaldunago dela, Hegoaldean aldiz gazteago eta euskaldunago, seinale ona baita etorkizunerako.

Kultura, nortasun kolektiboaren zimendua

"Zer da zuretzat euskal kultura"? Logikoena litzateke pentsatzea euskara euskal kulturaren oinarria dela eta euskal kultura gure nortasun kolektiboaren zimendua. Zorigaitzez inkestak agertzen dituen iritzia askoz nahasiagoak dira. Adibidez "euskal kulturarekin gehien lotzen diren elementuen zerrendan", euskara da lehen lerroan, gero kantua, dantza, pilota, ohiturak. Halere ohizko praktikan euskarak ez dauka lehentasuna, baina bai zinemak, kontzertuek, dantzak, erakustokiek. Euskarazko jardunaldiak (antzerkia, bertsolaritza eta literatura) ez dira biziki erakargarriak.

Etorkizuna: kultur ondarea zaindu tradizionalismoan erori gabe

Etorkizunari begira, inkesta honek Euskal Herriaren indarguneak eta ahulguneak agertzen ditu. Errezetarik ez dago, baina arriskuen arteko bide zuzenak ageri dira. Ondare kulturala zainduko da, tradizionalismora erori gabe; eta belaunaldi berrien modernitatea onartuko da, jatorrizko nortasunaren muina galdu gabe. Gure hizkuntzaren funtzio sinbolikoa denek onartzen dugu, baina sinbolismoa laster gal lezake, ez bagara folklorismotik erabilera publikora igan egiten. Eskolak euskara salbatuko du, familiaren lankidetzeta lortzen badu eta gizartearen jarraipena. Mende hastapen hau erabakigarria izanen da euskaltasunarentzat, guk adostasunean erabakiko dugun heinean.

«Le XXIème siècle peut être décisif pour l'avenir de la condition basque»

LIBURUAK

On Kixote Mantxakoa 400 urte

LOPEZ-MUGERTZA, J. K.; EGIA, Goizon; GARTZIA, Pruden; AIESTARAN, Inazio; KNÖRR, Henrike; BARANDIARAN, Alberto; BIDADOR, Joxemiel Iruña: Iruñeko Udala, 2006

On Kixote liburuaren lehen zatia argitalpenaren 400. urteurrena ospatzeko, 2005eko maiatzaren 2tik 5era Nafar Ateneoak eta Iruñeko Udalak antolatutako jardunaldietako aktak biltzen ditu liburu honek. Cervantesaren liburuaz hitz egitea euskaldunon ikuspegitik izan zen hitzaldi hauen funtsa: jakin ea benetan On Kixote euskaldunengan, gure literaturan, eraginik izan ote duen; edo, bestela, zer nolako eragina izan dugun euskaldunok Cervantesengan, zertan nabaritzen den eragin hori bere liburuetan, eta ez bakarrik On Kixote Mantxako ezagunean. Egile bakoitzaren hitzaldiaz gain hurrengo eranskinak ere aurki ditzakegu: Bitoriano Gandiagaren "On Kixoteri buruzko pasarte aukeratuak"; "On Kixoteren IX. Kapitularua, Nicolás Ormaetxea "Orixe"-k itzulia; Idazkari euskaldunak Cervantesen garaian eta Cervantesen aurretik; Nafarroaren III. Mendurrena zela eta izandako ospakizunen kronika, Kike Diez de Ultzurrunek itzulia.



Historias de emigración

GARCÍA ABAD, Rocío
Bilbao: UPV/EHU, 2005

En esta investigación se aborda el complejo fenómeno de la emigración, tomando como contexto los flujos migratorios que se establecieron de forma masiva en el último cuarto del siglo XIX hacia la Ría de Bilbao, procedentes de la corta y media distancia. Rocío García Abad utiliza para su análisis una metodología novedosa denominada "seguimientos nominativos" que consiste en la reconstrucción de una muestra de trayectorias migratorias concretas y reales. El objetivo último es completar el marco analítico de los procesos de emigración, profundizar en los factores de expulsión que influyen y determinan la toma de la decisión de emigrar y la selección del capital humano, así como las características tanto de los individuos que los protagonizan como de los desplazamientos.



Agenda

Martxo / Marzo / Mars

- 15: Donostia. Salones Literarios
- 16: Baiona. Comité Ejecutivo. Comisión Académica
- 19: Bilbao. Conferencia de Elena Medel
- 22: Donostia. Salones Literarios
- 26: Bilbao. Bizkaiko Bazkideen Eguna
- 28: Gasteiz. Literatura eta Zinema: Aritz Gorrotxategi Bideiointzaldia. Osasun Zientzien saileko bilera
- 31: Lumbier. Conferencia de A. Aguirre Sorondo

Apirila / Abril / Avril

- 19: Donostia. Salones Literarios
- 16-18: Centenario de la RIEV
- 20: Comité Ejecutivo
- 25: Gasteiz. Literatura eta Zinema: Alvaro Rabelli
- 26: Donostia. Salones Literarios
- 30: Fin de candidaturas al Premio Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral

Maiatza / Mayo / Mai

- 3: Donostia. Entrega del Premio Manuel Lekuona
- 3,5,6: Antzuola. Jornadas sobre Alardes
- 5: Gasteiz. Jornadas sobre la Ley de Museos
- 9: Gasteiz. Literatura eta Zinema: Harkaitz Cano
- 10: Donostia. Salones Literarios
- 12: Baiona. Jornadas sobre la Ley de Museos
- 15: Presidentes de Sección
- 17: Donostia. Salones Literarios
- 18: Comité Ejecutivo
- 19: Donostia. Jornadas sobre la Ley de Museos
- 21: Bilbao. Conferencia de Benjamin Prado
- 26: Bilbao. Jornadas sobre la Ley de Museos
- 26: Junta General
- 31: Donostia. Zuzenbide Saileko Jardunaldiak

Ekaina / Junio / Juin

- 1: Donostia. Zuzenbide Saileko Jardunaldiak